



Ikastaroa D.10

Azaroak 30

ERRONKA DEMOGRAFIKOA ETA HIRIEN ERANTZUNA

Zuzendaritza: Kepa Korta Murua

Donostiako Estrategia Bulegoa. Donostia/San Sebastián.

Alfonso Martínez Cearra

Bilbao Metropoli-30. Bilbao.

Lekua: Miramar Jauregia. Donostia/San Sebastián.

Helburuak: “Gizartea zahartzen ari da, asko hitz egiten da horri buruz, eta egia da berebiziko garrantzia duela gure hirien etorkizunerako; eta gazterik ezari buruz? Eskulana faltako dela esaten da, immigrazioaz hitz egiten da, gero eta behar handiagoa izango dela esaten da,... baina, ze ondorio dute joera horiek hirien ekosisteman? Ze eragin du gazteak galtzeak hiriaren dinamismoan? Eta gero eta handiagoa den kultura aniztasunak? Kultura artekotasunari buruz hitz egiten al dugu?”

Gure piramideak aspaldi aldendu ziren biztanleria orekatua duten gizarteak islatzen dituen ohiko “triangelu” formatik eta biztanleria eraldatzen ari diren aldaketa demografikoak islatzen dituzte: oinarria gero eta estuagoa da (jaiotza-tasa txikia), pixkaka “anfora alderantzikatuaren” forma hartzen ari da, eta, aldi berean, goiko aldea, biztanleria zaharrena islatzen duena, gero eta zabalagoa da, batez besteko bizi-itxaropenak nabarmen gora egin izanaren ondorioz.

Aipatutako fenomeno demografiko horiek oso adierazgarriak dira Euskadiren kasuan. Hemen batez besteko bizi-itxaropena 82,2 urtekoa da, nabarmen gaitzen du Europako batez bestekoa (78,8 urte), eta, aldi berean, jaiotza-tasak (2006an, 1,2) Europako txikienetakoak dira, belaunaldiak berritzearen atalasearen azpitik.

Bizitza luzatzen ari da batez ere osasun-sistemaren garapenaren, ikerketa biomedikoaren, eta elikaduraren eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren eraginez, eta horren guztiaren ondorioz bizi-itxaropena inoiz ez bezala luzatu da. Hala ere, fenomeno horri batzen badiogu familia-unitateak txikitu egin direla eta biztanleria gero eta gehiago mugitzen dela, ondorioetako bat da pertsona asko bizi direla bakarrik, eta gero eta urte gehiago. Biztanleria zaharrenaren (80 urtetik gorakoen) hazkundera esponentziala izan da, eta biztanle-talde horren mendekotasun- eta

ezintasun-arazoei heldu egin behar zaie –egungo errealitate demografikoak planteatzen dituen beste erronka batzuei bezala, hala nola, pentsio-sistemaren, osasun-sistemaren eta gizarte-babeseko sistemaren gaineko gero eta presio handiagoari– gizartearen, teknologiaren, laguntzaren eta hiriaren ikuspegitik. Indar betean daude zahartze aktiboa sustatzeko politikak, eta gero eta gehiago ari dira garatzen laguntza-teknologiak.

Horri guztiari hain ezaguna ez den baina gure hirien etorkizunean eragin handia izango duen beste erronka bat erantsi behar zaio: biztanleria gaztearen beheraldia. Beheraldi hori bilakaera demografikoaren ondorio da, baina prestakuntza bila eta, batez ere, lan bila beste herrialde batzuetara joandako gazteen emigrazioak areagotu egin du, eta epe ertainera biztanleria aktiboan beherakada kezagarria eragingo duela dirudi, enplegu-mailari eutsiko bazaio immigrazioarekin eta produktibitatea gehituz orekatu beharko dena. Ze eragin izango dute prozesu horiek gure gizartean, gure kulturen? Nola erakarriko dugu biztanleria gaztea gure hirietara, eta nola eutsi diogu bertan? Nolakoak izango dira immigrante horiek? Nondik etorriko dira? Egokituko ote dira gure gizartera? Zer-nolako eragina izango du aniztasun handiago horrek? Gure erakundeak eta gure gizartea jabetzen al dira erronka ikaragarri horretaz?

Ze estrategia sustatu behar dira erronka horiei aurre egiteko?: Jaiotza-tasak igotzen lagunduko duten jaiotzak sustatzeko politikak aspaldi samarretik ari dira garatzen gure inguruko beste herrialde batzuetan, baina zenbaterainoko arrakasta izan dute? Beste alde batetik, lan-merkatuan gehiago esku hartu behar dute emakumeek eta lan egiteko adinean dagoen biztanleria osoak, eta aukera hori denboran luzatzeko bidea eman behar zaio nahi duenari: lana eta familiako bizitza uztartzeko neurri eraginkorrak aplikatu behar dira, malgutasuna eman behar da lan-merkatuan (lana, ordutegiak, erretiratzeko adina... malgutu), langileen mugikortasunean, aukera-berdintasunean eta diskriminaziorik ez izatean eta, esan beharrik ez dago, lan-baldintzak hobetu behar dira. Era berean, neurriak behar dira giza kapitalaren galera minimizatzeko eta immigrazio gaitua eta talentuduna, eta hain gaitua ez dena, erakartzeko; eta immigranteak lan-munduan, gizartean eta kulturen txertatzen laguntzeko estrategiak ere behar dira.

Ikastaro honen xedea da gertatuko direla badakigun fenomeno hauen gainean eztabaida sakona bideratzea. Horretarako, dibertsitatearen alorreko adituak ditugu, eta horrek gizarte- eta kultura-prozesuetan eta berrikuntzarako gure ahalmenean nola eragiten duen ikusiko dugu. Beste hiri batzuetako esperientziak ere izango ditugu, euren arrakasten eta porroten bidez asko dugu eta ikasteko

Helburuak:

- Europako gizartean eta, bereziki, gure hirietan eragina duten joera demografikoak gainbegiratuko dira.
- Aztertuko da zer-nolako eragina duten biztanleriaren zahartzeak, jaiotza-tasa txikiek eta bizi-itzaropena luzatzeak, bai eta gazteria galtzeak, lan-indarra kontratatzeak, immigrazioak,... pentsio-sisteman, osasun-sisteman eta gizarte-babeseko sisteman. Eta, gainera, gure gizartean, gure kulturen, gure jarduera ekonomikoan eta planifikazioan gertatzen ari diren eta datozen hamarkadetan oraindik ere nabarmenagoak izango diren aldaketa sozialak aztertuko ditugu arreta hiriek aurrean dituzten erronketan eta aukeretan jartzeko.
- Europan garatutako politika publikoei buruzko gogoeta egingo da eta hainbat hiritan gauzatutako esperientzia zehatzak aurkeztuko dira, eta horri esker "erronka demografiko" honi heltzeko estrategiak norantz bideratu behar diren eztabaidatzeko oinarria izango dugu.

Donostiako estrategia bulegoarekin eta Bilbao metropoli-30 elkartearekin

lankidetzan. *Matrikula-prezioa: 68 €. Balio akademikoa: 10 ordu*

Hizkuntza ofiziala: Gaztelania

EGITARAUA

ZIKLOA / CICLO / CYCLE - D: GIZARTEA / SOCIEDAD / SOCIETY

AZAROA 30

08:30ean	Dokumentazioa banatu
08:45ean	“Aurreikusten den bilakaera demografikoa eta ekonomian eta gizartean dituen ondorioak” Kepa Korta Donostiako Estrategia Bulegoa. Donostia/San Sebastián
09:30ean	“Europako Iparraldetik begiratu bat” Alfonso Martinez Suediako Ohorezko Kotsuletxea Bilbon. Bilbo
10:15ean	“Aurreikuspen demografikoa eta enplegu-beharretan dituen ondorioak” Jose Miguel Ayerza ADEGI. Donostia/San Sebastián
11:00etan	Etenaldia
11:30ean	“Sistema soziosanitarioan duen eragina” Iñaki Berraondo Osasun Saila - Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz
12:30ean	“Dibertsitatearen esperientzia aktibo gisa” Myrtha Casanova <i>IEGD – Gizarte Aniztasunaren Kudeaketarako Europako Institutua. Bartzelona</i>
13:30ean	Saioaren amaiera

- 15:30ean "Familia-politika integrala. Jaiotza-tasa"
Eguzki Urteaga
Gizarte Langintzako U.E. Vitoria-Gasteiz . UPV/EHU
- 16:15ean "Aldaketa demografikoari hirigintzatik, etxebizitzaren esparrutik eta hiri-ingurunetik erantzuna ematea"
Silvia Urra
Tecnalia. Derio
- 17:00etan Etenaldia
- 17:30ean "Erronka demografikoa ikuspegi estrategikotik". Mahai-ingurua
Alfonso Martinez Cearra. Bilbao Metropoli-30. Bilbao
Kepa Korta. Donostiako Estrategi Bulegoa. Donostia/San Sebastián
Olga Elena Oteiza Ajona. Gasteizko Udala. Vitoria-Gasteiz
- 18:30ean Laburpen-saioa/Amaiera